

**Aretxabaletako IUPI**

Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala

2026-2029

# Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria

**Aretxabaletako IUPI**
Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala
2026-2029

# Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria

Data
**2025eko Iraila**

Aretxabaletako Udala

Sustatzailea
**Aretxabaletako Udala**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Lan honek **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren** %85eko dirulaguntza jaso du

projekta URBES
gizartea helburu

Aholkularitza teknikoa eta idazketa
**Projekta Urbes**




Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala hurrengo dokumentuek osatzen dute:

I. IUPI: Memoria.
**II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria.**
III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irisgarria.
IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.












# Aurkibidea

**Jarduketa Planaren laburpena** 4
**Hiri-ingurunea** 7
Durana kaleko irisgarritasuna bermatu eta segurtasuna indartu 7
Basaben oinezkoen ibilbideak eta espazioak egokitu, Santakurtz, Mitarte plaza eta Azberen inguruetan 12
Bizkaia-Aralar-Gorbeia-Zaraia auzunean oinezkoen ibilbideak eta espazioak egokitu 21
Ilargi plaza eta Gurea atzeko parkea berrurbanizatu, plataforma bakarrarekin biak elkartuz 25
Bedarretako San Migel auzunearen berrurbanizazioa 30
Adinekoen Egoitzaren eta Bedarreta auzoaren arteko ibilbidean egokitzapen-lanak egin 34
Loramendi 9 inguruan plataforma bakarra ezarri 39
Araba ibilbideko 34 bis eta 42 zenbakien aurreko espaloian egokitzapen-lanak egin 42
Belorrieta auzuneko 1-17 zenbakietan egokitzapen-lanak egin 46
Txarapea Ibilbideko zebrabideak egokitu, segurtasuna hobetzeko 49
Zebrabideetan egokitzapen-lanak egin 57
ALE-Ederlaneko bidegurutzea egokitu 62
Eskaileretan egokitzapen-lanak egin 66
Araba Ibilbidea eta Bide Berdea lotzen dituen eskailera ordezkatu 69
Iturrizarreko igogailu-kabina jarri 72
Basabe poligonoko bidegorria osatu 75
1b Sektoreko urbanizazioan bidegorria eta ibilbide osasungarria txertatu 79
Bidegorri-sarean hornikuntza- eta konponketa-lanak egin 81
Laborala-Lausitta tartea oinezkotu, Larrin plazarekin elkartuz 83
Urkuluko bidean eta itzulian egokitzapen-lanak egin 90
Komun publikoak egokitu edo eta gehitu, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideei jarraituz 94
Hiri-altzariak eta jolas-elementuak egokitu eta gehitu, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideei jarraituz 97
Zabor-bilketa irisgarriagoa eta seguruagoa egin 99
**Garraioa** 102
Aparkaleku egokituen irisgarritasuna eta banaketa bidezkoa bermatu 102
Autobus-geralekuak egokitu 104
**Eraikin publikoak** 108
Udaletxean igogailua jarri eta komunak egokitu 108
Udal-eraikinetako espazio nagusietan egokitzapen-lanak egin 110
**Espazio eta jarduera pribatuak** 113
Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduen irisgarritasuna hobetzeko laguntzak diseinatu eta gauzatu 113
Etxebizitza-eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko obrak egiteko laguntzak diseinatu eta gauzatu 115

# Jarduketa Planaren laburpena

| Laburpen taula | 2026 | 2027 | 2028 | 2029 | 2026-2029 (1) | 2030-2033 (2) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Udalerri irisgarria** | 898.000 | 225.000 | 180.000 | 240.000 | 2.018.000 | 830.000 |
| **Udal irisgarria** | 20.700 | 13.700 | 17.200 | 26.200 | 21.000 | 111.000 |
| **Guztira** | **918.700** | **238.700** | **197.200** | **266.200** | **2.039.000** | |

**Oharrak:**
(1) Zenbait jarduketa IUPI honi dagokion 2026-2029 laurtekoan kokatu dira, urtea zehaztu gabe.

(2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa batzu jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa.

| | Udalerri irisgarria | 2026 | 2027 | 2028 | 2029 | 2026-2029 (1) | 2030-2033 (2) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **Hiri-ingurunea** | | | | | | |
| **1.1** | **Ibilbide, espaloi eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea.** | | | | | | |
| **a** | Durana kaleko irisgarritasuna bermatu eta segurtasuna indartu. | 25.000 | | | | 753.000 (3) | |
| **b** | Basaben oinezkoen ibilbideak eta espazioak egokitu, Santakurtz, Mitarte plaza eta Azberen inguruetan. | | 15.000 | | | 250.000 (3) | |
| **c** | Bizkaia-Aralar-Gorbeia-Zaraia auzunean oinezkoen ibilbideak eta espazioak egokitu. | | | 15.000 | | 150.000 | |
| **d** | Ilargi plaza eta Gurea atzeko parkea berrurbanizatu, plataforma bakarrarekin biak elkartuz. | 15.000 | | | | 400.000 (3) | |
| **e** | Bedarretako San Migel auzunearen berrurbanizazioa. | | | | | | 750.000 (3) |
| **f** | Adinekoen Egoitzaren eta Bedarreta auzoaren arteko ibilbidean egokitzapen-lanak egin. | 50.000 | | | | | |
| **g** | Loramendi 9 inguruan plataforma bakarra ezarri. | 50.000 | | | | | |
| **h** | Araba ibilbideko 34 bis eta 42 zenbakien aurreko espaloian egokitzapen-lanak egin. | | | 40.000 | | | |
| **i** | Belorrieta auzuneko 1-17 zenbakietan egokitzapen-lanak egin. | | | | 25.000 | | |
| **1.2** | **Ibilbide-sarea zebrabide eta oinezkoentzako bidegurutze irisgarri eta seguruekin osatzea.** | | | | | | |
| **a** | Txarapea Ibilbideko zebrabideak egokitu, segurtasuna hobetzeko. | 5.000 | | | | 40.000 | |
| **b** | Zebrabideetan egokitzapen-lanak egin. | 35.000 | 35.000 | 35.000 | 35.000 | | |
| **c** | ALE-Ederlaneko bidegurutzea egokitu. | | | | 100.000 | | |
| **1.3** | **Ibilbide-sarea arrapala irisgarri eta eskailera seguruekin osatzea.** | | | | | | |
| **a** | Eskaileretan egokitzapen-lanak egin. | 8.000 | | 10.000 | 10.000 | | |
| **b** | Araba Ibilbidea eta Bide Berdea lotzen dituen eskailera ordezkatu. | | 25.000 | | | | |
| **1.4** | **Ibilbide irisgarrien sarea igogailuekin osatzea.** | | | | | | |
| **a** | Iturrizarreko igogailu-kabina jarri. | 70.000 | | | | | |
| **1.5** | **Bidegorriak eta bizikletazko mugikortasuna irisgarriagoak eta seguruagoak egitea.** | | | | | | |
| **a** | Basabe poligonoko bidegorria osatu. | | 100.000 | | | | |
| **b** | 1b Sektoreko urbanizazioan bidegorria eta ibilbide osasungarria txertatu. | | (6) | | | | |
| **c** | Bidegorri-sarean hornikuntza- eta konponketa-lanak egin. | | 5.000 | | | 25.000 | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1.6** | **Plazak eta espazio publikoak irisgarriagoak egitea.** | | | | | | |
| **a** | Laborala-Lausitta tartea oinezkotu, Larrin plazarekin elkartuz. | 20.000<br>40.000 | | | | 400.000<br>(3) | |
| **1.7** | **Parkeak eta ingurune naturalak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea.** | | | | | | |
| **a** | Urkuluko bidean eta itzulian egokitzapen-lanak egin. | | | 40.000 | | | |
| **1.8** | **Hiri-ekipamendua irisgarriagoa egitea.** | | | | | | |
| **a** | Komun publikoak egokitu eta gehitu, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideei jarraituz. | 50.000 | | | | | 80.000 |
| **b** | Hiri-altzariak eta jolas-elementuak egokitu eta gehitu, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideei jarraituz. | 80.000 | 15.000 | 15.000 | 15.000 | | |
| **c** | Zabor-bilketa irisgarriagoa eta seguruagoa egin. | (4) | 20.000 | | 20.000 | | |
| **2** | **Garraioa** | | | | | | |
| **2.1** | **Garraio-azpiegitura irisgarriagoa egitea.** | | | | | | |
| **a** | Aparkaleku egokituen irisgarritasuna eta banaketa bidezkoa bermatu. | | 10.000 | | 10.000 | | |
| **b** | Autobus-geralekuak egokitu. | 50.000 | | | | | |
| **3** | **Eraikin publikoak** | | | | | | |
| **3.1** | **Udal-eraikinak irisgarriagoak egitea.** | | | | | | |
| **a** | Udaletxean igogailua jarri eta komunak egokitu. | 360.000 | | | | | |
| **b** | Udal-eraikinetako espazio nagusietan egokitzapen-lanak egin. | 40.000 | (7) | 25.000 | 25.000 | | |
| **4** | **Espazio eta jarduera pribatuak** | | | | | | |
| **4.1** | **Espazio eta jarduera pribatuen irisgarritasuna hobetzeko laguntzak diseinatzea eta gauzatzea.** | | | | | | |
| **a** | Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu--establezimenduen irisgarritasuna hobetzeko laguntzak diseinatu eta gauzatu. | (5) | (5) | (5) | (5) | | |
| **b** | Etxebizitza-eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko obrak egiteko laguntzak diseinatu eta gauzatu. | (5) | (5) | (5) | (5) | | |

**Oharrak:**
(1) Zenbait jarduketa IUPI honi dagokion 2026-2029 laurtekoan kokatu dira, urtea zehaztu gabe.
(2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa batzu jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa.
(3) Ekonomikoki baldintzatutako jarduketa, aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena).
(4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da.
(5) Hobaria edo zehaztu gabeko dirulaguntza izanik, ez dagokio aurrekontu bat jartzea.
(6) Aurrekontua zehaztu gabe.
(7) Ikus “Udalerrirako seinaleztapen irisgarria, ulergarria eta homogeneoa diseinatu, eta eraikin publikoetako sarbideetan errotulazioa jarri” jarduketa-fitxa, “Udal irisgarria” eremu nagusiari dagokion dokumentuan”.

# Hiri-ingurunea

| **1.1.a** | **Durana kaleko irisgarritasuna bermatu eta segurtasuna indartu.** |
| --- | --- |
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.1. Ibilbide, espaloi eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Durana kalea, Herriko Plaza paretik Basabe-Mitarte bidegurutzeraino. |




| | |
| --- | --- |
| **Egungo egoera** | Durana kalea oinezkoentzako gune gisa dago ezarria zirkulazioari buruzko udal-ordenantzan (GAO, 2008-01-29). Zoladurak berak oinezkoentzako gunearen izaera |

indartzen du, kareharrizko galtzada-harriz egina baita:

- Galtzada-harriak mutxardatuta daude (""abujardado""), bustitzen denean irristakorregia izan ez daitezen.
- Orokorrean zoladuraren egoera ona da.
- Ibilgailuen joan-etorriaren eraginez, tarteka hondoraketa eta koskak sortu dira.
- Kalea ia plataforma bakarrekoa bada ere, tarte batzutan alboetako oinezkoentzako zerrenda gorago dago erdiko zerrenda partekatua baino:
  - Ekialdeko zerrendan: 29. eta 35. atarien bitartean, koska 4-6cm. ingurukoa da. Puntu batean oinezkoentzako ibi bat egokitu zen, zintarria higatuz.
  - Mendebaldeko zerrendan, kalearen luzera osoan, koska 5-10 cm. ingurukoa da. Ez dago ibirik kaleak neurtzen dituen 185 metroetan. 12. eta 34. atarien artean euri-urak soilik alde honetan jasotzen dira.






*Mitarterekin elkartzen den puntutik hasi (goiko irudia) eta Errekabarreneraino (beheko irudia), 185 metroko luzeran ez dago modu irisgarririk Durana kaleko atari bikoitien aldeko espaloiara igotzeko edo bertatik jeisteko.*




*Atari bakoitietako espaloia askoz ere laburragoa da, nolabaiteko ibi bat egokitu zaiolarik.*







*Goiko irudian, irisgarritasunari eragiten dioten hainbat elementu finko: aipatu espaloia (ibirik gabea), zoladuraren egoera puntu batzuetan, bankuak ez dira irisgarriak. Horiei gehitu behar zaio izaera mugikorrekoak: ostalaritzako terrazak batetik (ikusmen mugatua dutenek zailtasunak izaten dituzte horrelakoekin), eta ibilgailuak bestetik (martxan doazenak zein aparkatuta daudenak). Beheko irudietan ikus daiteke izaera komertzialari eusten diola Durana kaleak, eta horretan ari da lanean hainbat eragile, Udala edo Aretxarte tartean (Duranan trafikoa mugatzeko irizpide osso desberdinak adierazi dituzte batzuk zein besteek parte-hartze prozesuan).*

| | |
|---|---|
| **Azalpena** | Aurreikusi diren jarduketak:<br>— Durana kalea berrurbanizatu, koska guztiak ezabatuz eta zoladura aldatuz. Irisgarritasuna bermatuz eta inklusio-irizpideei jarraituz, eremua topagune gisa diseinatzea lehenestea da asmoa.<br>— Obra amaitzearekin batera, Mitarte-Durana kaleetako oinezkoen eremuan ibilgailu pribatuen sarbidea mugatzeko lanketa egin. |

| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
|---|---|---|
| **2026** | — Proiektua idatzi. | 25.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** (1) | — Obra gauzatu.<br>— Obra amaitzearekin batera, Mitarte-Durana kaleetako oinezkoen eremuan ibilgailu pribatuen sarbidea mugatzeko lanketa egin. | (3) 750.000<br>3.000 |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (1) Lehenengo laurtekoan, urtea zehaztu gabe.<br>— (3) Ekonomikoki baldintzatutako jarduketa, aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |

| | |
|---|---|
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Udaltzaingoa, Komunikazioa/Parte-hartzea. |
| **Beste eragileak** | — --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obra gauzatzea. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Proiektua idatzi izana, eta bere kostua.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua.<br>— Ibilgailu pribatuen sarbidea mugatzeko lanketa egin izana, eta bere kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak.<br>— Zoladurak.<br>— Hiri-altzariei buruzko fitxak.<br>— Informazioa eta komunikazioa. |

## 1.1.b Basaben oinezkoen ibilbideak eta espazioak egokitu, Santakurtz, Mitarte plaza eta Azberen inguruetan.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.1. Ibilbide, espaloi eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Basaben, Santakurtz kalearen hego-muturretik hasi eta Basabeazpi-Iralabarri-Azbe ingururaino. |




| | |
|---|---|
| **Egungo egoera** | — Eremuaren antolaketa eta bertatik zeharkatzen duten trafiko-mota desberdinena korapilatsua da.<br>– GI-627 errepidearekin zuzenean dago lotua, trafiko astunaren presentzia eta eragina altua delarik.<br>– Trafiko astun hori guztia ez da “eragile negatiboa” herritarren irisgarritasunaren begiradatik: eskualdea ipar-hego norabidean konektatzen duten autobudek bertan dituzte geralekuak, norantza batean zein bestean. |

- Gainera, eskualdeko mugikortasun jasangarrirako ardatz nagusienak zeharkatzen du eremua: iparralderantz Arrasatera eta hegoalderantz Eskoriatzara doan bidegorria eremuaren erdi-erditik pasatzen da.
- Honetaz gainera, herrigunearen eremu komertzialaren ondo-ondoan dago, oinezkotua edo trafikoa mugatua duena: horren eraginez, herrigunera hurbildu nahi duten kotxeentzako aparkaleku eskaintza handia dago bertan. Aparkaleku horiek, espazio asko hartzeaz gain, joan-etorri asko eragiten dituzte.
- Azpimarratzekoa da bi hezkuntza zentrotako ikasleak (eta horien gurasoak) ere biltzen dituela eremuak: Basabeazpikoak (eremuan bertan dago) zein Kurtzebarrikoak (bidegorriari jarraituz bertan dago). Erabiltzaile hauen presentzia nabarmena da baita ere hegoalderantz, Iralabarri plazarantz.
- Azkenik, kontuan izan behar da erabilera garrantzitsuak daudela, eguneroko bizimoduaren ikuspegitik: herriguneko supermerkatu handiena dago bertan, eta zuhaizpea topaleku eta pasialeku ere bada herritar askorentzat..

— Oinezkoentzako ibilbideetan hainbat gabezia hauteman dira eremuan:

- Ibilbide batzu ez dira erabat irisgarriak (zebrabideetako ibiak, tarte estuak...).
- Puntu batzu ez dira nahiko seguruak. Esaterako, biribilgunetik Santakurtz edo Durana aldera jeisten diren kotxeak zebrabidearen eta bidegorriaren gainetik pasatzen direnean.
- Ibilbide batzu gehitu daitezke. Nabarmenena, Mitarte plaza aldean, lerroan aparkatuta dauden ibilgailuen eta berdegunearen artean.







*Goiko bi irudiak : haur baten begiradak erakusten digu zein neurritan izan daitekeen nahasia edo arriskutsua ingurune bat: Basabeazpi ondoan, ia dena da trafikoa. Ez da harritzekoa galdetegietan trafikoaren arriskua batez ere haurrek eta guraso gazteek aipatu izana.*





*Goiko bi irudiak: arriskutik babesteko neurriak ezartzea izaten da lehenengo irizpidea espazio publikoan erabiltzaile zaurgarrien presentzia altua denean (haurrak, adinekoak). Estrategia horrek bere mugak ditu, arrisku-guneak eta -uneak eragozteko edo leuntzeko esku-hartzeak ezartzea gomendatzen delarik.*



*Zuhaizpea topaleku eta atsedengune da, bai eta zainketa-lanetarako lekua ere. Bere inguruan, dena da mugikortasuna: jasangarria (autobus-geralekua, patinetea hemen, bizikleta han) eta ez jasangarria (aparkalekuak eta trafikoa). Irisgarritasunaren ikuspegitik, jasangarria izan edo ez izan, normalean gatazkatsua da mugikortasunarekin harremana.*





*Aparkatzeko eskaintza handia dago eremuan. Kasu honetan, asfaltoak hartzen duen espazioa zabala da: kotxeak baterian jartzeko aukera ematen du, bai eta espaloiak apur bat zabaltzeko ere. Aparkalekuak baterian jartzeak aukera ematen du unitate bat edo beste kentzeko (oinezkoentzako ibilbide zuzenak egin ahal izateko) edo aparkaleku egokituak jartzeko.*

**Azalpena**

Idazketa-prozesuan dagoen Mugikortasun Planarekin koordinatu beharko badira ere, oraingoz hiru gune lehenestea aurreikusi da (ikus fitxa hasierako planua):

— Lau adarreko bidegurutzea, honakoek osatua: Santakurtz kalearen hego-muturra, biribilgunetik datorren adarra, Duranarantz jeisten dena eta Mitarte plaza aldeko aparkalekurantz doana.
— Hain zuzen, aurreko bidegurutze aldetik Basabeazpirantz doan oinezkoentzako ibilbidea.
— Basabeazpi, Iralabarriko eraikinaren eta Azbeko eraikinaren arteko bidegurutzeak.







*Lehenengo eremuan, batetik, trafikoa murrizteko eta bere abiadura baretzeko neurriak ezartzea aurreikusten da (kurba-erradioak txikituz, oinezkoek eta bizikletek galtzada gainean egin behar dituzten ibilbideak laburtuz, Santakurtz aldetik biribilgunera sartzea eragotziz, eta beraz lotura hori bi erreietatik batera pasatuz); eta bestetik, bidegurutzea osorik goratzea aurreikusten da. Edozein kasutan, oinezkoentzako ibilbideen irisgarritasuna, segurtasuna eta erosotasuna lehenetsiz.*







*Goiko hiru irudietan ikusten den bezala, oinezkoentzako ibilbide bat botatzen da faltan aparkaleku lerroaren eta berdegnearen artean. Jarduketak ibilbide hori ezartzea hartuko luke barne, onura-kostuen oreka aztertu eta gero.*







*Bigarren eremuan oinezkoentzako ibilbide seguruagoak eta irisgarriagoak ezartzea aurreikusten da: Basabeazpitik Iralabarri plaza aldera bata, eta hortik Azbeko eraikin aldera. Jarduketa honetan kontuan izan beharko da oinezkoen interakzioa, ez soilik kotxe eta kamioiekin, baita ere bizikletekin ere. Mugikortasun Planeko alternatibaren batean ibilgailu astunak murrizteko aukera aztertzen ari da, irisgarritasunaren eta segurtasunaren mesedetan litzatekeena.*

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — Proiektua idatzi. | 15.000 |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** (1) | — Obra gauzatu. | (3) 250.000 |
| **2030-2033** | — --- | --- |

| | |
|---|---|
| **Oharrak** | — (1) Lehenengo laurtekoan, urtea zehaztu gabe.<br>— (3) Ekonomikoki baldintzatutako jarduketa, aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- |
| **Beste eragileak** | — --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obra gauzatzea. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Proiektua idatzi izana, eta bere kostua.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideen arteko gurutzaketak.<br>— Seinaleztapen-zoladura.<br>— Zoladurak.<br>— Aparkaleku egokituak. |





*Mugikortasun Planaren lanketan planteatu da baita ere kalekaren tarte honetan plataforma eraikitzea eta bi espazioak elkartzea (2025eko udaberri-udazkena). Ezkerrean, egungo egoera. Eskuinean, egitasmoko alternatiba baten eskema.*

| **1.1.c** | **Bizkaia-Aralar-Gorbeia-Zaraia auzunean oinezkoen ibilbideak eta espazioak egokitu.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.1. Ibilbide, espaloi eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Bizkaia, Aralar, Gorbeia eta Zaraia kaleetako eraikinen arteko aparkalekua eta kanpo-espazioak.<br> |
| **Egungo egoera** | — Gaur egun eraikinen arteko espazioa aparkaleku erraldoi gisa erabiltzen da.<br>— Eremua zeharkatu behar duten oinezkoen ibilbideek ez dituzte segurtasun, irisgarritasun zein erosotasun baldintza estandarrak betetzen. |





*Gaur egun eraikinen arteko espazioa aparkaleku erraldoi gisa erabiltzen eta ulertzen da: estandarra hori izanik, oinezkoentzako ibilbide eta espazioen segurtasuna, irisgarritasuna zein erosotasuna ez da herrigune baten gutxienekora iristen. Esaterako, hiri-hondakinen edukiontzien gune bat nahitaezko helmuga da auzotarr guztientzat (gidatzen ez duten pertsonak barne).*



*Eraikinen arteko espaloietan egin da zenbait jarduketa, besteak beste fatxadan jarritako igogailuak direla-eta.*





*Zebrabideak falta dira eremuan (goiko bi iruditean): ez soilik eraikinen arteko ibilbideetan (goian), baita kanpoaldeko espaloietan ere (behean).*

**Azalpena**

Aurreikusi diren jarduketak:

- Bizkaia-Aralar-Gorbeia-Zaraia auzunean oinezkoen ibilbideak eta espazioak egokitu: plataforma bakarra ezartzea aztertuko da, baina kontuan izango da baita ere onura-kostua oreka ere.
- Espazio publiko honen diseinuan irizpide honi jarraituko zaio: espazio publikoa, printzipioz, oinezkoentzat izango da, eta ibilgailuen zirkulaziorako eta aparkalekurako erabiliko dena, berriz, beharrezkoa denera murriztuko da.

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — Proiektua idatzi. | 15.000 |

| | | |
|---|---|---|
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** (1) | — Obra gauzatu. | 150.000 |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (1) Lehenengo laurtekoan, urtea zehaztu gabe. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — Auzotarrak. | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obra gauzatzea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Proiektua idatzi izana, eta bere kostua.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak.<br>— Oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideen arteko gurutzaketak.<br>— Zoladurak.<br>— Aparkaleku egokituak.<br>— Hiri-altzariei buruzko fitxak. | |

## 1.1.d Ilargi plaza eta Gurea atzeko parkea berrurbanizatu, plataforma bakarrarekin biak elkartuz.

**Ardatza**

1. Hiri-ingurunea

**Helburua**

1.1. Ibilbide, espaloi eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea.

**Lehentasuna**

— Altua.

**Irismena**

— Jarduketak hartuko lukeen hedadura zabalena adierazi da: Ilargi plaza osorik, Gurea atzeko parkea osorik, eta Mitarte kalearen tarte bat, Errekabarrenetik Eroskiraino doana.




**Egungo egoera**

— Ibaiari paraleloan, badago espazio eta eraikin publikoen sekuentzia interesgarri bat, Arratabe jauregian (Udaletxea) eta parrokian hasi eta hegoalderantz doana (Larrin, Urats-gain, komentua), Errekabarren gurutzatuz parkea gurutzatu eta Ilargi plazan zehar Gerika plazaraino iristen dena. Gero handik aurrera Errekabarren kaleak ibaiarekin harreman zuzena dauka Loramendirantz.

— Sekuentzia horretan Gurea atzeko parkea eta Gernika plazaren artean ebakidura bakarra dago, Mitarte kaleak osatzen duena: ez soilik galtzada bat dagoelako espazio publiko horiek baino koska bat beherago, baita ere galtzada horretan aparkalekuak eta hiri-hondakinen edukiontziak daudelako, ebakidura harresi bilakatuz nolabait esateko.









*Goiko hiru irudietan, Errekabarrenetik Mitarte-Durana aldera doan kalearen hiru bista. Kontuan izanik bertatik pasatzen den trafikoaren abiadura mugatua dela (ibilgailu gehienek ez dute eremua zeharkatzen, aparkatzera edo aparkatzetik doaz), tarte hori oinezkoek eta ibilgailuek partekatzeko modukoa dela iritzi da.*

| | |
|---|---|
| | <br>*Ilargi plazaren eta Gurea atzeko parkearen berrurbanizazioarekin batera, bi espazioak harreman zuzenean jartzeko aukera dago.* |
| **Azalpena** | Aurreikusi diren jarduketak:<br>— Ilargi plaza eta Gurea atzeko parkea berrurbanizatu, plataforma bakarrarekin biak elkartuz.<br><br><br>Alternativa para Ilargi plaza. / ARETXABALETAKO UDALA.<br>*Jarduketa hau Mugikortasun Planean ere ari da lantzen Udala, 2025eko udaberri-udazkenean herritarren parte-hartzearekin egiten ari den proiektuan: [https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/bertan/2025/07/18/ayuntamiento-aretxabaleta-pulsa-opinion-ciudadania-9894155.html](https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/bertan/2025/07/18/ayuntamiento-aretxabaleta-pulsa-opinion-ciudadania-9894155.html).* |

| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
|---|---|---|
| **2026** | — Proiektua idatzi. | 15.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** (1) | — Obra gauzatu. | (3) 400.000 |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (1) Lehenengo laurtekoan, urtea zehaztu gabe.<br>— (3) Ekonomikoki baldintzatutako jarduketa, aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obra gauzatzea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Proiektua idatzi izana, eta bere kostua.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak.<br>— Oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideen arteko gurutzaketak.<br>— Zoladurak.<br>— Atsedenguneak, plazak, jolasguneak eta parkeak.<br>— Hiri-altzariei buruzko fitxak. | |



*Mugikortasun Planaren lanketan planteatu da baita ere kalekaren tarte honetan plataforma eraikitzea eta bi espazioak elkartzea (2025eko udaberri-udazkena). Ezkerrean, egungo egoera. Eskuinean, egitasmoaren eskema.*

## 1.1.e Bedarretako San Migel auzunearen berrurbanizazioa.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.1. Ibilbide, espaloi eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Ertaina. |
| **Irismena** | — Bedarrietako San Migel auzunea.   |
| **Egungo egoera** | — Eraikinen arteko urbanizazioan oinezkoentzako ibilbideen zabalera ez da nahikoa.<br>— Ibilbide nagusietako zebrabideetan espaloiak beheratu ditu Udalak.<br>— Auzuneko urbanizazioa zenbait gunetan egoera txarrean dago. |



*Espaloien zabalera ez da nahikoa.*




*Espaloietan ibiak egi ditu Udalak auzunean (goiko irudia 2013 urtekoa da).*



*Ibiak egin ziren arren, irisgarritasun arloko araudiaren eskakizunak ez dira bermatzen.*





*Goiko bi irudiak: zenbait gunetan zebrabideak falta dira eta oinezkoek desbideraketa luzeak egin behar dituzte.*

| | | |
|---|---|---|
| **Azalpena** | Jarduketak barne hartuko du:<br>— Auzunea berrurbanizatu, plataforma bakarra ezarriz (gutxienez, eraikinen arteko mendebalde-ekialde norantzako kaleetan).<br>— Oinezkoen ibilbideak osatu, zebrabide berriak ezarriz eta tarteka hiri-altzariekin hornituz. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** (2) | — Proiektua idatzi eta obra gauzatu. | (3) 750.000 |
| **Oharrak** | — (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa.<br>— (3) Ekonomikoki baldintzatutako jarduketa, aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — Auzotarrak. | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obra gauzatzea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Proiektua idatzi izana, eta bere kostua.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak.<br>— Oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideen arteko gurutzaketak.<br>— Zoladurak.<br>— Aparkaleku egokituak.<br>— Hiri-altzariei buruzko fitxak. | |

## 1.1.f Adinekoen Egoitzaren eta Bedarreta auzoaren arteko ibilbidean egokitzapen-lanak egin.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.1. Ibilbide, espaloi eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — GI-3920 errepidearen ondoan, Adinekoen Egoitzaren eta Bedarreta auzoaren arteko ibilbidea.<br> |
| **Egungo egoera** | — Adinekoen Egoitzaren eta herrigunearen arteko espaloietako joan-etorri askotan gurpildun aulkietan doazen pertsonak eta horien zaintzaileak hauteman daitezke. Kontuan izan behar da, kasu askotan, zaintzaile horiek adinean gora egin duten emakumeak direla (ikus “Desgaitasuna eta mendekotasuna genero-ikuspegitik” atala “Memoria” dokumentuan).<br>— Honekin adierazi nahi da Egoitzako erabiltzaileek eta horien zaintzaileek espaloietako koskak eta maldak (luzetara zein zeharka daudenak) beste inork baino gahiago sofritzen dituztela: esaterako, ez dago konparaziorik haur-orgatxoekin (batetik, haur txikiak arinak direlako, eta bestetik, gidarien adina eta indarra beste bat delako). |



*Egoitzaren aurrean zoladura hautsita dago espaloiaren zati handi batean.*





*Goiko bi irudietan ikusten den bidegurutzearen erosotasuna eta segurtasuna ez da behar adinakoa: oinezkoek desbideraketa luzea egin behar dute, eta ibilgailuen abiadura altua da, bidegurutzearen diseinuak azkar joatea ahalbidetzen duelako.*







*Goiko hiru irudietan ikusten den tartean espaloia ez da nahikoa irisgarria: tontortxo bat dauka (gandor moduko bat), zrharkako maldak eragiten dituelarik, bai zebrabiderantz, bai eta ibaiko pasealekurantz ere. Araudiak zeharkako maldetarako %2-ko maximoa dauka ezarria, eta gune horretan gainditu egiten da. Hau bereziki sofritzen dute gurpildun aulkietako erabiltzaileek eta bere zaintzaileek.*





*Goiko bi irudietan ikusten den zebrabidea malda batean dago kokatua: horren eraginez, zeharkako maldak araudiak ezartzen duena gainditzen du. Gainera, ibiek egoera zailtzen dute, are gehiago espaloia nahikoa zabal ez dela kontuan hartzen bada.*

**Azalpena**



| | | |
|---|---|---|
| | Aurreikusi diren jarduketak:<br>— Izurietara daraman bidegurutzea egokitu, kurben erradioak gutxituz eta zebrabidea lekualdatuz. Galtzadaren erdialdera oinezkoentzako babes bat jartzea aztertuko da, zebrabideak bi tarte izan ditzan eta ibilgailuek abiadura motel dezaten.<br>— Lausittako biribilgunearen ondoan espaloia berreraiki, zeharkako maldak kentzeko.<br>— Bedarreta aldeko zebrabidea goratu eta bidegurutzerantz lekualdatu, zeharkako malda leunagoa izan dadin (maldan dagoen zebrabide bat diagonalean gurutzatzeko aukera ematen denean zeharkako malda leunagoa da). | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Jarduketa zehaztu.<br>— Obra gauzatu. | (4) 0<br>50.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Obra gauzatzea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa zehaztu izana, eta bere kostua.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideen arteko gurutzaketak.<br>— Ibilbide maldatsuak.<br>— Zoladurak.<br>— Seinaleztapen-zoladura. | |

| **1.1.g** | **Loramendi 9 inguruan plataforma bakarra ezarri.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.1. Ibilbide, espaloi eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Loramendi auzuneko 7-9-11 zenbakien eta garajeko arrapalaren arteko espazioa.<br> |
| **Egungo egoera** | — Adierazitako eremuko urbanizazioa egoera txarrean dago.<br>— Kiroldegira daraman ardatza egokituta dago, eta horrek are nabarmenagoa egiten du egokitu gabe utzi zen eremuaren egoera. |

| | |
|---|---|
| | <br> |
| **Azalpena** | Aurreikusi diren jarduketak:<br>— Urbanizazioa eraberritu, plataforma bakarra eraikiz.<br>— Zoladuraren bitartez oinezkoen lehentasuna indartu.<br>— Hiri-altzari eta -elementuak jarri etxalde-mailako atsedengune eta topaguneak eskaintzeko. |

| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
|---|---|---|
| **2026** | — Jarduketa zehaztu.<br>— Obra gauzatu. | (4) 0<br>50.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** | — --- | --- |

| | | |
|---|---|---|
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Obra gauzatzea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa zehaztu izana, eta bere kostua.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak.<br>— Zoladurak.<br>— Seinaleztapen-zoladura.<br>— Hiri-altzariei buruzko fitxak. | |

| **1.1.h** | **Araba ibilbideko 34 bis eta 42 zenbakien aurreko espaloian egokitzapen-lanak egin.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.1. Ibilbide, espaloi eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Araba ibilbideko 34 bis eta 42 zenbakien aurreko espaloia. |




**Egungo egoera**



*Bidegurutze honetan oinezkoek galtzadaren gainean egin behar duten bidea luzea da: kurba-erradioak murriztak bide hori laburtuko luke, eta gainera ibilgailuen abiadura baretzen lagunduko luke. Iparralderantz (eskubitara irudian) doan espaloia zabaltzeko ere baliatu beharko litzateke esku-hartzea.*





*Goiko irudiko bi guneetan irisgarritasuna ez da bermatzen: batetik, ibien geometria dela-eta, eta bestetik, hiri-hondakinen edukiontzien eraginagatik.*

**Azalpena**




Aurreikusi diren jarduketak:

— Bidegurutzea egokitzea (eskubitara, irudian). Udalak epe labur-ertainera futbol zelaien artetik bidegurutzeraino datorren kalea eraldatzea aurreikusten duenez, esku-hartzea jarduketa horren barruan sartuko litzateke.
— Irudian adierazi diren bi espaloi-tarteak egokitzea, “espaloi goratuaren” irizpideari jarraituz: oinezkoek ez lukete ibirik jeitsi edo igo beharko, lan hori kotxeentzako utziz. Bide batez, urbanizazio barruan oinezkoen ibilbide nagusienetan segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko esku-hartzeak egitea aztertuko da.

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — Jarduketa zehaztu.<br>— Obra gauzatu. | (4) 0<br>40.000 |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da. | |

**Udaleko arduradunak**

— Hirigintza.

Beste sail inplikatuak:

— ---

**Beste eragileak**

— ---

| | |
|---|---|
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Obra gauzatzea. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa zehaztu izana, eta bere kostua.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak.<br>— Oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideen arteko gurutzaketak.<br>— Zoladurak.<br>— Seinaleztapen-zoladura.<br>— Aparkaleku egokituak.<br>— Hiri-altzariei buruzko fitxak. |

| **1.1.i** | **Belorrieta auzuneko 1-17 zenbakietan egokitzapen-lanak egin.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.1. Ibilbide, espaloi eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Belorrieta auzuneko 1-17 zenbakieetako eraikinen eta espaloien arteko loturak. |




| | |
|---|---|
| **Egungo egoera** | — Barruko eta kanpoko urbanizazioen artean koskak daude: batzu, espaloiei dagokion zorua finkatzen joan delako denboran zehar, eta besteak, bera garaian koska horiekin eraiki zirelako, irisgarritasunaren inguruko ardura eta estandarrak bestelakoak zirenean. |





*Goiko bi irudietan, espaloien eta portxeen arteko kosken adibideak.*





*Goiko bi irudietan, Udalak egin dituen egokitzapen-lanak, establezimenduetako sarbideetara irisgarritasuna bermatzeko.*

| | | |
|---|---|---|
| **Azalpena** | Aurreikusi diren jarduketak:<br>— Koskak kentzeko egokitzapen-lanak, jarduketen onura-kostua oreka kontuan hartuz. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — Jarduketa zehaztu.<br>— Obra gauzatu. | (4) 0<br>25.000 |
| **2026-2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Obrak/Zerbitzuak. | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Obra gauzatzea, hala badagokio. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa zehaztu izana, eta bere kostua.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Zoladurak. | |

## 1.2.a Txarapea Ibilbideko zebrabideak egokitu, segurtasuna hobetzeko.

**Ardatza**

1. Hiri-ingurunea

**Helburua**

1.2. Ibilbide-sarea zebrabide eta oinezkoentzako bidegurutze irisgarri eta seguruekin osatzea.

**Lehentasuna**

— Altua.

**Irismena**

— Txarapea ibilbidea.




**Egungo egoera**




*Txarapea ibilbidea GI-3920 errepideari lotzen zaio Lausittako biribilgunean. Zabala eta zuzena da, eta honi gehitu behar zaio luzera osoan ez daukala jarduerarik behe solairuetan, galtzada zeharkatzen duten oinezkoen proportzioa baxua delarik. Guzti hauen eraginez, ibilgailuen abiadura altua da, are gehiago maldan beherako norantzan.*



*Zebrabide guztiak daude goratuta: irisgarritasun fisikoa bermatzen dute, baina ibilgailuek egin behar dituzten "jauziak" leunegiak direnean, ez dute trafikoaren abiadura baretzen, eta beraz, ez dute oinezkoen segurtasuna areagotzen.*

— Txarapea ibilbideko zebrabideak, behetik gorantz:
















*Zazpi zebrabide dira guztira. Jarduketaren parte izango da zehaztea horietatik zeintzu eraldatzea.*





*Parte-hartze prozesuan askotan aipatu den beste arazo bat da garajetik irteten diren ibilgailuena: ikus-eremu oso mugatua daukate, eta espaloian doazen oinezkoek arrisku-uneak aipatu dituzte. Kotxeen gidari batzuk aipatu dute baita ere espaloian behera patinete gainean ziztu bizian datozen erabiltzaileak ikustea ez dela erraza.*

**Azalpena**




*Zazpi zebrabide dira guztira Txarapea ibilbidean zeharka daudenak. Jarduketaren parte izango da zehaztea horietatik zeintzu eraldatzea: irudian lau adierazi dira (magenta kolorez).*

| | | |
|---|---|---|
| | Aurreikusi diren jarduketak:<br>— Txarapea ibilbidea gurutzatzen duten zebrabideak eraldatu (magenta kolorean adierazi da eraldatzea aurreikusi direnak). Irizpideak:<br>_ Zebrabidean galtzada estutzea. Aukera bat da zabalera 7 metrotik 5 metrotaraino estutzea, bi ibilgailu gurutzatzea ahalbidetuz. Bestea da zabalera 3 metrotaraino estutzea, txandaka pasatzera behartuz ibilgailuak.<br>_ Hasiera batean, “hirigintza taktikoaren” baliabideak aplikatuz, jarduketaren alderdi nagusiak ezartzea. Honek behin-betiko proiektuan doikuntzak egitea ahalbidetzen du, behin-behineko esku-hartzearen ondorioak aztertu ondoren.<br>_ Eraldatutako zebrabideetan oinezkoentzako espazioa irabaztea aurreikusten denez, oinezkoen presentzia ere areagotu bertan, atsedenerako eta topaketarako guneak egokituz: eserlekuak, landareak… Honekin, batetik eserlekuak jarriko lirateke ibilbidean zehar (gaur egun ez dago banku bat bera ere goiko azken 750 metrotako luzeran), eta bestetik, oinezkoen presentzia bera trafikoabaretzeko baliabide bilakatzen da zebrabideen inguruetan.<br>— Txarapea ibilbideko bidegurutzeak ere adierazi dira (urdin kolorean, goiko irudian), jarduketaren helburu nagusiaren gainean eragiteko aukera eskaintzen bait dute (trafikoaren abiadura baretzea eta oinezkoen segurtasuna areagotzea. Izan ere, zeharkako 7 zebrabideetaz gain, badaude 3 zebrabide gehiago Txarapea ibilbidearen ardatzari paraleloak direnak. Irizpideak:<br>_ Bidegurutzetako kurba-erradioak txikitzea. Orohar, horrelako gune batean 3-4 metroko erradioa nahikoa da ibilgailu arruntek egiten dituzten kurbatan. Aldiz, autobusek egiten diztuzten kurbatan (badago bat jarduketa-eremuan bertan) 6 metroko erradioa nahikoa izan daiteke. Kurba horien diseinuan bi erradioak jar daitezke “bata bestearen gainean”: 3m-koaren eta 6m-koaren arteko espaloia asko altxatu gabe, zintarria beheratzen bada, ibilgailu handien gurpilek eremu hori maniobratan zapaltzea ahalbidetuz. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Segurtasuna hobetzeko esku-hartzea prototipatu zebrabide batean. | 5.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** (1) | — Behin-betiko esku-hartzea gauzatu. | 40.000 |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (1) Lehenengo laurtekoan, urtea zehaztu gabe. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Udaltzaingoa, Obrak/Zerbitzuak. | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Behin-betiko esku-hartzea gauzatzea, hala badagokio. | |

| | |
|---|---|
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Esku-hartzea prototipatu izana, eta bere kostua.<br>— Behin-betiko esku-hartzea gauzatu izana, eta bere kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxa (1.2.b).<br>Ikus honako fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak.<br>— Oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideen arteko gurutzaketak.<br>— Zoladurak.<br>— Seinaleztapen-zoladura.<br>— Aparkaleku egokituak.<br>— Hiri-altzariei buruzko fitxak. |



*Mugikortasun Planaren lanketan eremuaren oinezkotzea ere planteatu da (2025eko udaberri-udazkena). Ezkerrean, ibilbidearen behekaldearen egungo egoera. Eskuinean, egitasmoaren eskema.*



*Mugikortasun Planaren lanketan eremuaren oinezkotzea ere planteatu da (2025eko udaberri-udazkena). Ezkerrean, ibilbidearen goikaldearen egungo egoera. Eskuinean, egitasmoaren eskema.*

## 1.2.b Zebrabideetan egokitzapen-lanak egin.

**Ardatza**

1. Hiri-ingurunea

**Helburua**

1.2. Ibilbide-sarea zebrabide eta oinezkoentzako bidegurutze irisgarri eta seguruekin osatzea.

**Lehentasuna**

— Altua.

**Irismena**

— Udalerriko zebrabideak, irisgarritasunaren eta segurtasunaren ikuspegitik arazo edo eta erabiltzaile gehien dituztenak lehenetsiz.



**Egungo egoera**

Diagnostiko orokorra:

— Zebra-bide askok arau-hausteak dituzten arren, galtzada mailan daudenek sortzen dituzte oinezkoentzako oztopo handienak: ibiak ez direlako ondo eraiki, koskak daudeko espaloia eta galtzadaren artean...

— Irisgarritasunaren ikuspegitik oztopo larrienak koskak dira: araudiak galtzada eta espaloia berdinduta egon behar dutela aipatzen du.

— Trafikoarekiko harremana eta ikusgaitasuna (bai gidariek ikusten dutena, bai eta oinezkoek ikusten dutena ere) kontuan hartu behar dira zebra-bidearen kokapena egokia ezartzeko.

— Zenbait kaletan distantzia luzeegia dago zebra-bideen artean. Esaterako, Araba kalean, 110 metroko tartea dago Iralabarri plazaren eskaileren parean dagoen zebrabidetik hurrengora, Basabe 4. zenbakiko pabilioiaren atearen aurrean dagoenera (Aritu, Artemman, LKS...).

— Asko dira oinezko ibilbidearekin lerrokatuta ez dauden zebra-bideak. Kasurik larriena biribilguneetan hauteman daiteke.

— Aurreko bien eraginez, arrisku uneak sortzen dira, oinezkoek ibilbide laburrak eta zuzenak lehenesten dituztelako.

— Araudien arteko bateragarritasun ezaren ondorio zuzena izan da ukimenezko zoladura desegokiak eta heterogeneoak izatea.

— Irisgarritasun-maila baxua duten zebra-bide gehienak zaharrak dira.

— Azken urteotan jarri/egokitu diren zebra-bide gehienen irisgarritasun-maila altua da.

**Diagnostikoa mapa digitalean** jasoa dago:
https://www.google.com/maps/d/edit?mid=19UDR2d02sxVWPN4twDE7u9G4F2MEC94&ll=43.03851538236644%2C-2.5037613526166824&z=20



*Hainbat zebrabidetan jarduketa garrantzitsuak egin dira: Nafarroa-Loramendiko honetan, galtzada goratu da, gurutzatzen zaion kalean jarraituz, ibairaino plataforma bakarra ezarriz. Euri-urak jasotzeko sareta jarraiak baliatuta espaloiak zabaldu dira, ukimenezko zoladurak jarri dira, LED argiak... i*



*Azken urteetan zebrabideen gaineko ikusgaitasuna areagotzeko jarduketa bat orokortu du Udalak herrigunean: zebrabidearen ondoan (trafikoa datorren aldean) aparkatzea eragozteko elementuak jarri dira. Babes-neurri merkea eta eraginkorra da, herritarrek ere ondo ulertzen dutena.*



*110 metroko tartea dago zebrabide honetatik hurrengora (Iralabarri plazako eskaileraren parean).*

**Azalpena**

Aurreikusi diren jarduketak:

- Lehentasuna ematea koskak dauzkaten zebrabideei eta segurtasun baxuko kokapenetan daudenei.
- Bidegurutze batzuetan zebrabide goratuen bitartez trafikoa baretzeko neurriak ezarri.
- Zenbait bidegurutzetan zebrabideak lekualdatu, oinezkoek egin beharreko desbideraketak laburtzeko.
- Zenbait bidegurutze eta kale-tartetan zebrabideak gehitu: orohar, bidegurutzeetan ibilbide guztiek izan behar lukete dagokion zebrabidea, eta kale-tarteei dagokionez, dentsitate altuko eremuetan ez litzateke 40m-tako tartea gainditu behar, eta dentsitate ertainekoetan 80m-takoa.



*Espaloiei "belarriak" ateratzeak segurtasuna areagotzen du, eta horretaz gainera, hiri-ekipamendua jarri eta atsedenerako zein topaketarako aukerak handitzen ditu.*



*Aurreko irudietan ikusten zena gainditzen ari gara pixkanaka: espaloian oinezkoentzako ibiak sortu ordez (geometria eta irisgarritasun aldetik zaila izaten dena askotan), zebrabidea goratzeko joera zabaltzen ari da. Aukera hau askoz hobea da irisgarritasunaren ikuspegitik. Bide batez, trafikoaren abiadura baretzen laguntzeko eraginkorra izan daiteke, baldin eta ibilgailuek igo eta jeitsi beharreko koskak "deserosoak" badira.*



*Aurreko irudiko irizpidea aplikatzen da herriguneetako bidegurutzetan, oinezkoei aukera gehiago eskainiz ibilbideen trazadura egiteko orduan.*





*Zebrabideekin batera, trafikoa baretzeko tresnak eta baliabideak txertatzen dira askotan: bihurguneetako erradioak murriztea (goian), edo galtzada erdiko babesak (behean).*

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — Hainbat zebrabidetan egokitzapen-lanak egin. | 35.000 |
| **2027** | — Hainbat zebrabidetan egokitzapen-lanak egin. | 35.000 |
| **2028** | — Hainbat zebrabidetan egokitzapen-lanak egin. | 35.000 |
| **2029** | — Hainbat zebrabidetan egokitzapen-lanak egin. | 35.000 |
| **2026-2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Obrak/Zerbitzuak. | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Obrak gauzatzea, hala badagokio. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Egokitutako zebrabide kopurua, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak.<br>— Oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideen arteko gurutzaketak.<br>— Zoladurak.<br>— Seinaleztapen-zoladura. | |

| 1.2.c | ALE-Ederlaneko bidegurutzea egokitu. |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.2. Ibilbide-sarea zebrabide eta oinezkoentzako bidegurutze irisgarri eta seguruekin osatzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — ALE-Ederlaneko bidegurutzea.<br> |
| **Egungo egoera** | — Bidegurutze honetan izaera oso desberdineko trafikoak gurutzatzen dira: inguruko lantegietako kamioiak eta langileak (bertan dago Fagor-Ederlaneko aparkalekua), Txarapeako bizilagunak, kiroldegiko eta futbol zelaiko erabiltzaileak, ALEko langile eta ikasleak...<br>— Txarapeatik jeisten den trafikoaren abiadura altua denaren pertzepzioa jaso da parte-hartze prozesuan.<br>— Bihurguneko kurba-erradioak handiak dira: industriari lotutako trafikoa egoteak ez ditu kurba horiek guztiak hain zanalak izatea justifikatzen. Kontuan izan behar da erradio altuek, batetik abiadura altuak ahalbidetezen dituztela, eta bestetik, oinezkoen ibilbideetan desbideraketak eragiten dituztela. |




*Oinezkoei bide zuzenak eskaintzen ez bazaizkie, behar ez den lekuetan gurutzatzeko probabilitatea handitzen da, segurtasunaren kaltetan.*




*ALEko fatxadari jarraituz kiroldegirantz doan espaloia asko estutzen da bidegurutzera iristean.*



*Txarapeatik beherantz datorren trafikoaren abiadura altua dela jaso da parte-hartze prozesuan.*

**Azalpena**

Aurreikusi diren jarduketak:
— Bidegurutzeko kurba-erradioak txikitu, asfaltoak hartzen duen espazioa murrizteko eta oinezkoek egin behar dituzten desbideraketak ahalik eta gehien laburtzeko.

- Orohar, horrelako gune batean 3-4 metroko erradioa nahikoa da ibilgailu arruntek egiten dituzten kurbatan.
- Kamioiek edo autobusek (kiroldegi zein futbol-zelai aldera esaterako) egiten diztuzten kurbatan 6 metroko erradioa nahikoa izan daiteke. Kurba horien diseinuan bi erradioak jar daitezke "bata bestearen gainean": 3m-koaren eta 6m-koaren arteko espaloia asko altxatu gabe, zintarria beheratzen bada, ibilgailu handien gurpilek eremu hori maniobratan zapaltzea ahalbidetuz.

— ALE eta kiroldegia lotzen dituen oinezkoentzako ardatza lehenetsi, zebrabidea lekualdatuz (ibilbidean desbideraketak eragin ez ditzan) eta goratuz (Txarapeatik datorren trafikoaren abiadura baretuz bide batez).

**Markole (cruce de ALE):**




Propuesta para el cruce de ALE (Aretxabaleta Lanbide Eskola)-bajada (subida) de Txarapea. / ARETXABALETAKO UDALA.

*Jarduketa hau Mugikortasun Planean ere ari da lantzen Udala, 2025eko udaberri-udazkenean herritarren parte-hartzearekin egiten ari den proiektuan: [https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/bertan/2025/07/18/ayuntamiento-aretxabaleta-pulsa-opinion-ciudadania-9894155.html](https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/bertan/2025/07/18/ayuntamiento-aretxabaleta-pulsa-opinion-ciudadania-9894155.html) (irudietako orientazioa ez dator bat kartografian agertzen denarekin).*

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — Jarduketa zehaztu (edo proiektua idatzi, hala badagokio) eta gauzatu. | 100.000 |
| **2026-2029** | — --- | --- |

| | | |
|---|---|---|
| **2030-2033** (2) | — --- | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea, hala badagokio.<br>— Obra gauzatzea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa zehaztu eta gauzatu izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus aurreko fitxa (1.2.b).<br>Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak.<br>— Oinezkoen eta ibilgailuen ibilbideen arteko gurutzaketak.<br>— Zoladurak.<br>— Seinaleztapen-zoladura. | |



*Mugikortasun Planaren lanketan bidegurutzea egokitzea planteatu da baita ere (2025eko udaberri-udazkena). Ezkerrean, egungo egoera. Eskuinean, egitasmoaren eskema.*

## 1.3.a Eskaileretan egokitzapen-lanak egin.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.3. Ibilbide-sarea arrapala irisgarri eta eskailera seguruekin osatzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Udalerriko kanpo-espazioetako eskailerak, irisgarritasunaren eta segurtasunaren ikuspegitik arazo edo eta erabiltzaile gehien dituztenak.<br> |
| **Egungo egoera** | Herriko eskailera askoren diagnostiko orokorra:<br>— Mailen dimentsioak ez dira egokiak.<br>— Maila kopurua ez da araudiak ezarritakoa.<br>— Eskubandak falta dira, ez dira bikoitzak, ez daude alde bietan edo geometria desegokia dute.<br>— Ukimenezko zoladurak falta dira edo ez dira egokiak.<br>— Arrapalen diagnostiko orokorra:<br>— Ohikoa da %8-ko malda gainditzea.<br>— Ibilbide-tarte batzuk luzeegiak dira.<br>— Zabalerak eta atsedenguneak ez daude ondo dimentsionatuta.<br>— Eskubandak falta dira, ez dira bikoitzak, ez daude alde bietan edo geometria desegokia dute.<br>— Ukimenezko zoladurak falta dira edo ez dira egokiak. |



*Eskailera askotan araudiak eskatzen duen eskubanda bikoitzak jarriak daude, eskaileraren alde banatan.*





*Eskailera zaharretan batzutan, baina oraindik berrietan ere bai, irisgarritasun-arloko araudia ez da erabat betetzen (Mitarten bata, ASE-komentuan bestea).*

| | |
|---|---|
| **Azalpena** | Aurreikusi diren jarduketak:<br>— Onura-kostua oreka kontuan izanik, herrian gehien erabiltzen diren eskaileretan eta egoera txarrena dutenetan egokitzapen-lanak egitea, batez ere segurtasuna helburu dutenak: |

| | | |
|---|---|---|
| | — Eskubanda bikoitzak jarri alde banatan.<br>— Eskailera-mailen ertzak erorketak saihesteko tratatu: ikusgarriagoak eginez eta testura nabarmenduz. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Mitarte Plazako eskaileran egokitzapen-lanak egin. | 8.000 |
| **2027** | — | --- |
| **2028** | — Eskaileretan egokitzapen-lanak egin. | 10.000 |
| **2029** | — Eskaileretan egokitzapen-lanak egin. | 10.000 |
| **2026-2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Obrak/Zerbitzuak. | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Egokitzapen-lanak egitea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Egokitzapen-lanak egin izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Eskailerak.<br>— Eskubandak eta barandak.<br>— Zoladurak.<br>— Seinaleztapen-zoladura. | |

| **1.3.b** | **Araba Ibilbidea eta Bide Berdea lotzen dituen eskailera ordezkatu.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.3. Ibilbide-sarea arrapala irisgarri eta eskailera seguruekin osatzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Araba Ibilbidea eta Bide Berdea lotzen dituen eskailera (Solohandi 25, Goyaran eta Azkenaren atzean). |




| **Egungo egoera** | — Egoera txarrean egoteaz gain, eskailera ez da segurua eta ez du irisgarritasun arloko araudiak ezartzen dituen gutxieneko baldintza asko betetzen. |
|---|---|



*Araba Ibilbidea eta Bide Berdea lotzen dituen eskailera*

**Azalpena**

Aurreikusi diren jarduketak:
— Dagoen eskailera kendu eta berria jarri.



*Eskaileraren zabalerak araudiak eskatzen duen gutxienekoa gainditzea aurreikusten da, eta bazter batean bizikletentzako errai bat kokatzea. Ondorioz, araudiaren eskakizun bat ez da beteko, erreiaren aldean ez bait litzateke eskubandarik jarriko.*

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
| --- | --- | --- |
| 2026 | — --- | --- |
| 2027 | — Dagoen eskailera kendu eta berria jarri. | 25.000 |
| 2028 | — --- | --- |
| 2029 | — --- | --- |
| 2026-2029 | — --- | --- |
| 2030-2033 | — --- | --- |
| Oharrak | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |

| | |
|---|---|
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Dagoen eskailera kentzeko eta berria jartzeko lanak. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa egin izana, eta bere kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Eskailerak.<br>— Eskubandak eta barandak.<br>— Zoladura.<br>— Seinaleztapen-zoladura. |

| **1.4.a** | **Iturrizarreko igogailu-kabina jarri.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.4. Ibilbide-sarea arrapala irisgarri eta eskailera seguruekin osatzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Iturrizar plazako azken etxebizitza-blokearen hegoaldea, plazatik Txarapea ibilbideraino.<br><br> |
| **Egungo egoera** | — Igogailuaren egitura egina dago. Beheko sarbidea, Iturrizar plazan, +241m-ko kotan dago, eta goikoa, Txarapea ibilbidean, +254m-ko kotan.<br>— Eskaileraren ondoan eskailera zuzen bat dago. Batak zein besteak Deba ibaiaren alde bat bestearekin eta bere goialdearekin zuzenean egitea ahalbidetuko dute.<br><br>*Txarapea ibilbideko sarbidea, zebrabidearekin lerrokatuta. Ondoan ikus daiteke eskaileraren eskubanda.* |

**Azalpena**

Aurreikusi diren jarduketak:
— Barruko luze-zabal librea 200*140cm-takoa duen kabina jartzea.




*Beheko sarbideko planua (+241m-ko kota)*

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| 2026 | — Iturrizarreko igogailu-kabina jarri. | 70.000 |
| 2027 | — --- | --- |
| 2028 | — --- | --- |
| 2029 | — --- | --- |
| 2026-2029 | — --- | --- |
| 2030-2033 | — --- | --- |
| Oharrak | — --- | |

| | |
|---|---|
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- |
| **Beste eragileak** | — --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Igogailu-kabina jartzea. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Iturrizarreko igogailu-kabina jarri izana, eta bere kostua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Igogailuak eta eskailera/arrapala mekanikoak.<br>— Seinaleztapen-zoladura. |




*Igogailuaren hego altxatua.*

## 1.5.a Basabe poligonoko bidegorria osatu.

| | |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.5. Bidegorriak eta bizikletazko mugikortasuna irisgarriagoak eta seguruagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Basabe poligonoa. |




**Egungo egoera**



*Puntu honetatik aurrera bidegorria osatu gabe dago.*

**Azalpena**

Aurreikusi diren jarduketak:
— Bidegorria osatu.

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — Jarduketa zehaztu.<br>— Obra gauzatu. | (4) 0<br>100.000 |

| | | |
|---|---|---|
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Obra gauzatzea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa zehaztu izana, eta bere kostua.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Fitxa honen amaieran jaso diren dokumentuetako gidalerroei jarraitzea gomendatzen da, bereziki Ministerioak argitaratu duen gidakoei. | |

| | | |
|---|---|---|
| **Gomendatutako dokumentazioa** |   | **Guía de recomendaciones para el diseño de infraestructura ciclista.**<br>Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana (2023).<br>https://cdn.mitma.gob.es/portal-web-drupal/esmovilidad/guia_recomendaciones/guia_de_infraestrcutura_ciclista.pdf |
| |   | **Bizikletaz.**<br>Bizikletari eta bidegorriei eskainitako atala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean.<br>https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/bizikletaz |




**Bizikleta bidezko mugikortasuna udal ordenantzetan jasotzeko gomendio teknikoak.**
Gipuzkoako Foru Aldundia, Esther Anaya (2017).
https://www.gipuzkoa.eus/documents/33095840/33220323/Ordenantzak+azkena_EUS.pdf/87fb99b2-432e-3b5b-1d9f-9eca31cce757?t=1655384183016




**Bizikletaren udal gidaliburua. Nola garatu bizikleta bidezko mugikortasunerako politika lokalak.**
Gipuzkoako Foru Aldundia, A. Sanz eta al. (2015).
https://www.gipuzkoa.eus/documents/33095840/33220323/Udal+gidaliburua_eus.pdf/a84d17f8-a1e6-07f7-53a4-c3b25bcf473d?t=1655383900178




**Bizikletaren udal gidaliburua. Nola garatu bizikleta bidezko mugikortasunerako politika lokalak.**
Gipuzkoako Foru Aldundia, A. Sanz eta al. (2006).
https://www.gipuzkoa.eus/documents/33095840/33220323/Manual+bidegorri+GipEUSK.pdf/689c7206-bf92-fed7-a015-2b8168fe02ff?t=1655383625253




**Bizikleta eta tokiko gobernuak.**
Ederbidea proiektua, Alfonso Sanz (2017).
https://www.gipuzkoa.eus/documents/33095840/33220323/Bizikleta+eta+tokiko+gobernuak.pdf/8ebed90d-38b5-7ac4-6051-7c5de4ff89b7?t=1655384294058




**Gipuzkoan bizikleta garraiobide gisa erabiltzeari buruzko ikerketa soziologikoa 2023.**
Gipuzkoako Foru Aldundia, Edorta Bergua (2024).
https://www.gipuzkoa.eus/documents/33095840/33112692/Gipuzkoan+bizikleta+garraiobide+gisa+erabiltzeari+buruzko+ikerketa+soziologikoa+2023.pdf/b118f9e1-77a3-a40c-53bc-03e3560be78a?t=1730721004797




**Bizikleta bidezko mugikortasuna donostian barrena: azpiegituren eta ohituren analisia eta biztaleriaren pertzepzioa.**
Alaitz Arrieta Iturzaeta (2017).
https://www.cristinaenea.eus/eu/download/contenidos/ficheros/03_MovilidadBicicleta_EUS.pdf

## 1.5.b 1b Sektoreko urbanizazioan bidegorria eta ibilbide osasungarria txertatu.

**Ardatza**

1. Hiri-ingurunea

**Helburua**

1.5. Bidegorriak eta bizikletazko mugikortasuna irisgarriagoak eta seguruagoak egitea.

**Lehentasuna**

— Altua.

**Irismena**

— 1b Sektorea, eta bere lotura Lausitta zein Arbizelaiekin (hilerriko bidegurutzea).




**Egungo egoera**

— Eremua 2025eko udaberri-udan zehar zehaztu gabe dago.
— Eremuak Bigarren Hezkuntzako institutua jarriko denez, joan-etorri ugari aurreikusten dira, oinez, patinetean zein bizikletaz.

**Azalpena**

— Eremu honetan zehar ibai bazterreko pasealekuari jarraipena ematea aurreikusten da.
— Santutxon bidegorriarekin elkartzeko aukera dago.
— IUPIari dagokionez, irizpide nagusiak dira:
  - Lehentasuna oinezkoen irisgarritasunean eta segurtasunean jartzea.
  - Atsedenguneak egokitzea.
  - “Kolesterolaren ibilbide” gisa erabiliko dela aurreikustea, eta horretarako ekipatzea.

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — Jarduketa gauzatu. | (6) |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (6) Aurrekontua zehaztu gabe: urbanizazio-proiektuaren araberakoa. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Obra gauzatzea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Proiektua idatzi izana, eta bere kostua.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — **1.4.a jarduketa-fitxaren** amaieran jaso diren dokumentuetako gidalerroei jarraitzea gomendatzen da, bereziki Ministerioak argitaratu duen gidakoei. | |

## 1.5.c Bidegorri-sarean hornikuntza- eta konponketa-lanak egin.

**Ardatza**

1. Hiri-ingurunea

**Helburua**

1.5. Bidegorriak eta bizikletazko mugikortasuna irisgarriagoak eta seguruagoak egitea.

**Lehentasuna**

— Altua.

**Irismena**

— Udalerriko bidegorri-sarea.



**Egungo egoera**

— Aparkalekuen eskaintza ez da nahikoa zenbait lekutan.
— Zenbait puntutan mantentze-lanak behar ditu bidegorrien sareak.



*ALE ondoko bizikleta-aparkalekua.*

**Azalpena**

Jarduketak barne hartuko du:

— Bizikleta-aparkaleku berriak jarri: kokapenak zehazteko irizpide gisa erabiltzea aurreikusten da patineteentzako jarrita daudenen ondoan bizikletentzako elementuak jartzea.
— Bidegorrien zoladuran konponketa-lanak egin.

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — Bizikleta-aparkaleku berriak jarri. | (4*) 5.000 |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2026-2029** (1) | — Bidegorrien zoladuran konponketa-lanak egin. | (4*) 25.000 |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (1) Lehenengo laurtekoan, urtea zehaztu gabe, konponketak egiteko beharraren arabera.<br>— (4*) Aurrekontuak egokitzapen-lanei dagokion kostua jasotzen du, horiek zehazteko aurrelanak Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten baita. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Udaltzaingoa, Obrak/Zerbitzuak. | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Konponketa-lanak gauzatzea, hala badagokio. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketak zehaztu izana.<br>— Aparkalekuak jarri izana: kopurua eta kostua.<br>— Egokitzapen- edo konponketa-lanak gauzatu izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — **1.4.a jarduketa-fitxaren** amaieran jaso diren dokumentuetako gidalerroei jarraitzea gomendatzen da, bereziki Ministerioak argitaratu duen gidakoei.<br>– Aparkatze-sistemei dagokionez, Ministerioaren gidak gomendatzen du erabiltzaileen trebezia eta indarra anitzak kontuan izatea, eta beraz, ahalegin fisiko gutxi eskatzen duten sistemak jarteza: esaterako, gurpila altxatu beharrik gabe 60cm-tako tartearekin bizikleta uztea ahalbidetzen dutenak.<br><br><br>*Espazio gutxi dagoenean irudikoa bezalakoak jarri ohi dira: ez da gomendagarria irisgarritasunaren zein erabilerreztasunaren ikuspegitik.* | |

| **1.6.a** | **Laborala-Lausitta tartea oinezkotu, Larrin plazarekin elkartuz.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.6. Plazak eta espazio publikoak irisgarriagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** | — Oinezkotzea: Lausitta kalea, Otalora-Durana-Errekabarren bidegurutzean hasi eta zubiaren beste alderaino, Larrin plaza ere hartuz (Errekabarren 2-8 zenbakien artekoa).<br>— Lausitta kalea zabaltzea, trafikoaren bi norantzei lekua egiteko: zubian hasi eta Txarapea ibilbide aldera, kalearen iparraldeko bazterreko aparkaleku-zerrenda eta espaloia hartuz.<br> |
| **Egungo egoera** | — Beheko irudietan ikusten den puntua herrigunera sarbidea da iparraldetik datozen ibilgailu askorentzako, eta trafikoa baretzeko hainbat saiakera egin badira ere (zoladura aldatu, lorontzi erraldoiak eta bestelako hiri-elementuak jarri, esaterako), abiadura altuan sartzen dira.<br>— Parte-hartze prozesuan zein galdetegietan arriskuaren pertzepzioa nahiko zabaldua dagoela hauteman da, heldu zein haurren artean. |



*Otalora-Durana-Errekabarren kaleen arteko bidegurutzea: trafikoa baretzeko hainbat saiakera egin badira ere, oraindik ez du erabat galdu garai bateko errepide izaera.*





*Oinezkoen segurtasuna bermatu nahi horretan, ibilgailuek hartzen duten espazioa indartu da, oinezkoentzako ibilbide estu eta aldrebesak geratu direlarik. Goian, oinezkoen ibilbideak mugatzen eta baldintzatzen dituzten hesiak. Behean, jarduketaren bitartez harremanean jar daitezkeen bi plazatxoak, gau egun isolatuak.*







*Goiko eta beheko irudietan ikustendenez, gaur egun bidearen trazadurak, eta baita zoladurak berak ere, trafikoari ematen dio lehentasuna. Goian, eskubitara, Errekabarren 2. zenbakiko garajera sarbidea.*



*Laussitta aldean, oinezkoen eremua zubian hasiko litzateke.*

**Azalpena**

Aurreikusi diren jarduketak:

— Hasiera batean, “hirigintza taktikoaren” baliabideak aplikatuz, jarduketaren alderdi nagusiak ezarri. Honek behin-betiko proiektuan doikuntzak egitea ahalbidetzen du, behin-behineko esku-hartzearen ondorioak aztertu ondoren.

— Trafikoa:

  - Otalora-Durana aldetik zubirantz trafiko arrunta eragotzi, eta soilik larrialdi eta zerbitzuetako ibilgailuei utzi pasatzen
  - Iturrizar aldera egiteko aukera bakarra Lausitta aldetik eman: gaur egun norantza bateko kalea denez, aparkalekuen zerrenda kentzea, edo bestela, galtzada zabaltzea aurreikusten da (espaloia nahikoa zabal da).

— Espazioak eta zoladurak:

  - Plataforma bakarra egokitu Otalora-Durana bidegurutzetik zubiaren beste aldera arte.

  - Plataforma harreman zuzenean jarri, bai udaletxearen eta parrokiaren arteko plazatxoarekin, bai eta Errekabarren 2-8 zenbakien arteko espazioarekin (Larrin plaza). Gainera, plaza hau berrurbanizatu, geometriarekin lotutako oztopoak eta arriskuak kentzeko, zoladurak ere aldatuz.
  - Zoladura homogeneo bat erabili, oinezko izaera indartuko duena (asfaltoaren erabilera saihestuko da).
- Hiri-altzariak:
  - Hesiak kendu.
  - Espazioari egonleku-izaera emango dioten elementuak eta landaretza jarri, larrialdi eta zerbitzuetako ibilgailuak poliki pasatzea ahalbidetuko duen moduan jarriz.

**Peatonalización desde la parroquia hasta el puente**

Así, en el entorno de **Otalora-Lausitta**, se propone **peatonalizar el tramo que va desde el cruce junto a la parroquia hasta el puente** —permitiendo solo el acceso a las personas usuarias de los garajes de Larrin Plaza número 2—, así como la **conexión Otalora-Durana en el lado de la Herriko Plaza**. Todas las entradas y salidas motorizadas a Lausitta pasarían a realizarse exclusivamente por Txarapea ibilbidea, ampliando, para ello, la calle.



Propuesta para el entorno de Otalora-Lausitta. / ARETXABALETAKO UDALA.

*Jarduketa hau Mugikortasun Planean ere ari da lantzen Udala, 2025eko udaberri-udazkenean herritarren parte-hartzearekin egiten ari den proiektuan:* [https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/bertan/2025/07/18/ayuntamiento-aretxabaleta-pulsa-opinion-ciudadania-9894155.html](https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/bertan/2025/07/18/ayuntamiento-aretxabaleta-pulsa-opinion-ciudadania-9894155.html)

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — Proiektua idatzi.<br>— Behin-behineko esku-hartzea ezarri, hirigintza taktikoaren bitartez. | 20.000<br>40.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |

| | | |
|---|---|---|
| **2026-2029** (1) | — Obra gauzatu. | (3) 400.000 |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — (1) Lehenengo laurtekoan, urtea zehaztu gabe, konponketak egiteko beharraren arabera.<br>— (3) Ekonomikoki baldintzatutako jarduketa, aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Proiektua idaztea.<br>— Behin-behineko esku-hartzea ezartzea, hala badagokio.<br>— Obra gauzatzea. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Proiektua idatzi izana, eta bere kostua.<br>— Behin-behineko esku-hartzea ezarri izana, eta bere kostua, hala badagokio.<br>— Obra gauzatu izana, eta bere kostua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus hurrengo fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" dokumentuan:<br>— Oinezkoen ibilbideak.<br>— Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuak.<br>— Atsedenguneak, plazak, jolasguneak eta parkeak.<br>— Hirigintza taktikoa.<br>— Zoladurak.<br>— Seinaleztapen-zoladura.<br>— Hiri-altzariei buruzko fitxak. | |





*Mugikortasun Planaren lanketan eremuaren oinezkotzea planteatu da baita ere (2025eko udaberri-udazkena). Goian, egungo egoera. Behean, egitasmoaren eskema. IUPIan jarduketa-eremua zabaltzea aurreikusi da, Errekabarren 2-8 zenbakien arteko espazioa (Larrin Plaza) ere sartuz.*

| 1.7.a | Urkuluko bidean eta itzulian egokitzapen-lanak egin. |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.7. Parkeak eta ingurune naturalak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea. |
| **Lehentasuna** | — Ertaina. |
| **Irismena** | — Urkuluko bidea eta itzulia. |



**Egungo egoera**



*Puntu honetatik aurrera, tarte batean ibiltari zein bizikleta-gidariek inguruko baserrietako ibilgailuekin partekatzen dute zirkuitua, segurtasunaren inguruko kezka agertzen dutelarik.*





*Herritarren ongizaterako baliabide garrantzitsua da Urkuluko urtegiko itzulia.*



*Eserlekuek ere mantentze-lanak behar dituzte. Aipatzekoa da modelo honek ez duela irisgarritasun arloko araudia betetzen.*




*2013ko irudiak: neurri honetan edukitzeko egin behar diren mantentze-lanak Aretxabaletaren tamainako Udal batek dituen baliabideak gainditzen ditu, baina ulertzekoa da parte-hartze prozesuetan gai hau mahai gainean jartzea partaideek.*

| | | |
